

XXVII. Juanita Ibaibarrig a Literatur lehiaketa

(2020)

Gazteen artean idazteko zaletasuna piztea da sari honen helburua, euren hizkuntza aberastuz, espresibitatea hobetuz eta irudimena garatuz.

Parte hartzea

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik
DBHko 4. mailara arteko
ikasleak.

Gaia:

• Gaia librea da eta parte hartzaileek ipuin, narrazio edo erreportaje bat aurkeztuko dute.

Aurkezteko erak:

Emailuz.

euskara@udalermua.net.

Aurrez aurre

Lobiano Kulturgunea

Ikastetxean bertan

Sariak

• Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzeko 40 euroko erosketa saria, Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan trukatu ahalko dena

• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzeko, berriz, 60 euroko erosketa saria, Ermuko Merkatarien Elkarteko dendetan trukatu ahalko dena.

Aurkezteko epea

2020ko azaroaren 4a

Sariak ematea

2020ko abenduaren 3an

Juanita Ibaibarriagaren bizitza

Juanita Ibaibarriaga Ermuan jaio zen 1934. urtean, Iturriaganeke etxean, eta berari eta bere senideei Pelaionekuak esaten zieten.

Ezkonduta eta lau seme-alaba izan zituen (bata txikitan hil zitzaion). Haiexek hazi eta heztera dedikatu zen buru belarri: inguruan baina beti loba aldra itzela, ze 'tia Juanita' berezia zen.

Autodidakta eta irakurle amorratua, bere inguruan gertatzen zenaz jantzita egotea gustatzen zitzaion pertsona irekia zen, irizpide zabalekoa, dena eta denekin errespetatzen ohitua.

Mendia zen bere aparteko beste zaletasuna. Egunero egiten zuen bere osteratxoa eta handik bueltan aldean beti ekartzen zuen zerbait, bere amari entzunda zion eta "Euskal Herriko mendiak oso aberatsak dira"; berbena-belarrak edo beherakoa kentzeko landareren bat edo tentsioa jaisteko asun txortaren bat... Ondo ezagutzen zituen denak, euren izen eta ezaugarri guztiekin.

Alaia eta berba gutxikoa, beti zeukan minaren puntan erantzun edo kontseilurik egokiena. Atsegina zen berarekin berba egitea, ze hemendik ez bazen, handik agertzen zuen bere bizitzaren jakituria, bere filosofia eta gauzak ikusteko modua. Gauzak datozen moduan lasai hartzekoa, "konponduko don neska!" zen bere esaldietako bat.

Beste aita eta amarekin askorekin batera Ermuko familia elkartean borrokatu zuen eta ikastola aurrera ateratzeko.

Bere seme-alaba etxerako lanak lagunduz, euskaraz irakurtzera eta idaztera zaletu zen eta haiek koxkortu zirenean, lan sozialak egiten hasi zen.

Behargin fin eta nekaezina, herriko Euskal Birusa Kultur elkar-tearen sorrera konpartitu zuen beste pertsona batzuekin, gogor eta lan eginez bertako hizkuntza, ohiturak eta abestien berreskurapenean. Drogeteniturre herri aldizkariko hasierako zenbakietan kolaboratzaile moduan agertzen da.

Juanita 1992an hil zen, 58 urte zituela, adorerik handienaz, gaixotasun mingarri bati aurre egin ostean.

Etxekoandre arrunt eta apala izan zen, Ermuko beste edozein andrazko modura, estimatua, bere ingurukoek maitatua, kultura eta besteentzako beharra egiteko zein bizirik mantendu behar zenari eusteko astia atera zuena.